DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ekialdeko Barrutia
Distrito Este

# Ekialdeko BARRUTITIK

Altza · Intxaurrondo · Miracruz-Bidebieta

1 MAIATZA MAYO 2021

Ekialdeko Barrutiko lauhilabetekaria
Publicación cuatrimestral del Distrito Este
www.donostia.eus



# Arrobitxulo parkeko bolatokia uda bukaerarako egongo da prest

**Ekialdeko Barrutiko Batzarraren ekimenari esker, Herrerak bolatokia izango du berriz ere. Arrobitxulo parkean egongo da kokatuta eta obrak martxoan hasi eta udararako prest egotea aurreikusten da.**

Duela hamarkada bat desagertu zen Herrerako bolatokia eta urteetan zehar hainbat bizilagun zein elkartek eskatu izan dute auzoarentzat bolatoki berri bat irekitzea. Ekialdeko Barrutiko 2019ko aurrekontuetan jaso zen proposamena eta Donostiako Udalak iazko urte amaieran onartu zuen.

Bolatoki berria estalia izango da eta publikoarentzat espazioa izango du. Honetaz gain, toka, botea eta petankara jokatzeko guneak izangoditu ere, helduentzako ohiko jolas-gune bilakatzeko asmoarekin.

### ARROBITXULO ESTRENARÁ BOLATOKI A FINALES DE VERANO

Hace una década que desapareció el bolatoki de Herrera y desde entonces numerosos vecinos y vecinas y diversas asociaciones han pedido uno nuevo para el barrio. La Junta del Distrito lo propuso en su presupuesto de 2019 y el Ayuntamiento de San Sebastián aprobó el proyecto a finales del año pasado.

El nuevo bolatoki estará cubierto y tendrá graderío para el público, además de espacios para jugar a toka, bote y petanca, creando así un lugar de ocio idóneo para adultos.

# Ekialdeko Barrutiaren komunikazio kanal berria

Ekialdeko Barrutiak aldizkari berria jarri du martxan: **Ekialdeko Barrutitik.** Lau hilabetean behin kaleratuko da eta Altza, Bidebieta eta Intxaurrondoko bizilagun guztien etxeetara bidaliko da, barrutian gertatzen diren gai garrantzitsuen berri emateko.



**Zer da Ekialdeko Barrutia?** Barruti bat administrazioak sustatzen duen antolakuntza da, lurralde zehatz batean, deskontzentrazioa emateko eta gobernu eredua eta ariketa bizilagunei gerturatzeko. Barruti baten bidez organo eta sistema bat osatu nahi da, lurralde horretarako erabakiak herritarren parte-hartzearekin hartuz, erabaki horiek lurralde horretarako ahalik eta onenak izan daitezen helburuarekin. Hala ere, barruti baten gaitasuna ez da loteslea; lehenesteko gaitasuna dauka, ez erabakiak hartzekoa.

Ekialdeko Barrutia 2018an sortu zen Altza, Bidebieta eta Intxaurrondoko herritarren parte-hartzea sustatzeko, Udal kudeaketa herritarrei gerturatzeko eta gardentasuna eta eraginkortasuna hobetzeko helburuarekin.

Batzarrean 17 ordezkari daude: Barrutiko presidentea eta presidenteordea, zazpi alderdi politikoetako ordezkariak eta zortzi herri eragileetako ordezkariak (bost arlo entitateetako ordezkariak eta bost auzo elkarteetako ordezkariak). Azken ordezkari horien aukeraketa hauteskundeen bidez egin zen, eta horietara elkarteak soilik aurkeztu zitezkeen. Egun, Martin Ibabe (EAJ) da Barrutiko presidentea. Batzarreko kide guztien artean lan taldeak sortzen dira eta Batzarrean hartzen diren erabakiak Udal Gobernuaren esku uzten dira.

Orain arte gauzatu direnen eta martxan daudenen artean, hamar proiektu batzen dira. Horiez gain, Barrutiak 2018ko Partaidetzazko Aurrekontuen ariketarako bere aurrekontutik 700.000 € bideratu zituen, eta horiekin herritarrek proposatu eta bozkatutako bederatzi proiektu gauzatu dira.

## NUEVO CANAL DE COMUNICACIÓN DEL DISTRITO ESTE

El Distrito Este, estructura administrativa del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, ha puesto en marcha una nueva revista: **Ekialdeko Barrutitik**. Se lanzará cada cuatro meses y se enviará a los domicilios de todas las y los vecinos de Altza, Bidebieta e Intxaurrondo para informarles de los temas importantes que ocurren en el Distrito.

El Distrito Este nació en 2018 con el objetivo de fomentar la participación ciudadana de los barrios, acercar la gestión municipal a la ciudadanía y mejorar la transparencia y la eficiencia. Esta publicación pretende acercar el trabajo que se hace en el Distrito a las y los vecinos.

La Asamblea está compuesta por 17 representantes: El presidente y vicepresidente del Distrito, 7 representantes de los partidos políticos y 8 representantes de los agentes sociales (5 representantes de entidades sectoriales y 5 representantes de asociaciones vecinales). La elección de estos últimos representantes se ha realizado mediante elecciones. El actual presidente del Distrito es el concejal delegado Martin Ibabe (EAJ-PNV).

## Ba al zenekien? | Sabías que...

**Noiztik dagoen Ekialdeko Barrutia sortzeko eskaera bizilagunen artean?** Auzoko Elkarte eta bizilagunek aspalditik egina zuten Ekialdeko Barrutia sortzeko eskaera: 2004tik aurrera hainbat proposamen egin ziren, baina atzerago ere 90. hamarkadaren bueltan. Lehen aipamena ordea zaharragokoa da... 1977koa!

**¿Cuál es el presupuesto del Distrito?** Se calcula cada año teniendo el cuenta el capítulo de inversiones del año anterior; al Distrito le corresponde el 2'5% del presupuesto del Ayuntamiento. Este año le corresponden 2.476.000€ que se repartirán entre los proyectos pendientes de 2019 y 2020 y los que vienen de 2021.

**Sortu zenetik zenbat proiektu proposatu dituen Barrutiak eta zenbat dauden martxan?** 2019tik datozenak zazpi dira. 2020ko eta 2021eko proposamenekin zerrenda bateratua egin da aurten gauzatzeko eta denetara 26 dira. Momentu honetan martxan daudenak lau dira: Arrobitxuloko bolatokia, Herrerako diagnostiko soziala, Ekialdeko Barrutiko oinezko bideen inbentarioa eta Emakumeen biografiak jasotzen dituzten plakak beraien izena duten kale eta espazioetan.

**¿Cada cuánto se reúne la Junta del Distrito y cuándo es la siguiente?** Al inicio del curso se acepta el calendario de reuniones y suelen celebrarse cada dos meses. La siguiente está prevista para el día 5 de mayo en la Casa de Cultura de Intxaurrondo.




# “Si no podemos celebrar el centenario este año, lo haremos el siguiente”

Josean San Román es socio de Artzak Ortzeok desde 1967. Eso quiere decir que ha festejado el 50 aniversario, el 75 y ahora el 100. Pocos pueden decir eso, aunque afirma que hay alguno que estuvo en el 25... Artzak Ortzeok es una sociedad del barrio y para el barrio, con gran historia. Fundada en 1921 esperaban celebrar a lo grande el centenario, pero por ahora, los festejos tendrán que esperar.

**¿Cuáles fueron los orígenes de Artzak Ortzeok?**

En tiempos de la I República había unas organizaciones de apoyo mutuo, de ayudas a parados y cosas así. En el Alto de Miracruz había una organización que se llamaba “Beti aurrera” que hacía labores del estilo. Artzak Ortzeok nació de ahí.

**¿Y cuándo se movió entonces al local de la calle Intxaurrondo?**

Bueno, antes era la calle Manuel Azaña, date cuenta que hablamos en tiempos de que esto era Altza... Donde el caserío Larrotxene había un bar y ahí se hacían las reuniones. A los pocos años el dueño de la sidrería Galardi alquiló el local como sociedad y ahí se instalaron hasta comprarlo años más tarde.

**Con una historia tan larga son muchas las iniciativas que ha promovido Artzak Ortzeok.**

¡Pues sí, imagínate! Cuando yo empecé, como no había ningún apoyo a la gente del barrio, hacíamos de todo: las fiestas, excursiones, monte, actividades deportivas y benéficas, el Olentzero, la Jaiotza... Luego cosas más especiales como la romería de Ulia que recuperamos, Santa Ageda que aún se hace o las fiestas del barrio que estuvimos organizando hasta los años 74-75. Entonces se reunieron las asociaciones de vecinos y más tarde gente joven del gaztetxe por ejemplo para organizarlas entre todos-.

**¿Cuáles serán las celebraciones más importantes del centenario?**

Tenemos una tamborrada que será de las más antiguas de Donostia, desde el 56. Se salía en las fiestas del barrio y ya después de unos años no cuajaba tan bien e hicimos una pequeña revolución comprando trajes nuevos y lo pasamos al día de San Sebastián. En principio era sólo masculina pero luego ya pasamos a ser mixta. Para el 100 aniversario queríamos juntarnos todas las tamborradas del barrio y hacer un día conjunto. Otras iniciativas eran comidas populares y alguna con los cocineros ilustres del barrio Juan Mari y Elena por ejemplo. Como todos sabemos, ahora no se pueden hacer por la situación, pero si no es este año, el siguiente lo haremos, seguro.

## ERAKUSLEHIOA Iritziak | Opiniones...

### EKIALDEA ERRONKAZ BETERIK

Giza esparru guztietan oso ohikoa da entzutea, guztiz beharrezkoa dela jakitea nondik gatozen, oraina ulertzeko eta etorkizuna birpentsatzeko.

Gaur hirian Ekialdea bezala ezagutzen den espazioa, anexionatutako Altza Hiribildu zaharreko lur sail gehienaz osatutako eremua da, hamaika auzoz antolatua nahiz eta hiru eremu nagusietan sailkatua egon. Hiribildutik auzora pasatze horrek gehi pasa diren urteak eta egoerak eragin zabala eduki dute gaurko izaeran, bai populazio motan eta kopuruan, bai ekonomian, bai hirigintzan, etxebizitza planetan, eta abar.

Gaur egun erronka ugari duena, eta egungo pandemiak sakondu egin dituenak, besteak beste:

- Auzo barruko eta arteko komunikazio egokia, garraio publikoa, oinezko bideak, bidegorriak...
- Irisgarritasun arazo larria eraikin askotan eta zenbait kaleetan ere.
- Hiriko langabezi tasa altuenetakoa, komertzio txikia krisi gogorrean eta sustapen plan bereziak garatzear.
- Hezkuntzan, erdi mailatik gorako ikasketa zentro edo esparru guztiak beste eremu batzuetan kokatuak, gurean bere garaian zeudenean. Zenbait zentro publikoetan kontutan hartzeko kudeatu beharrezko egoera aniztasun aldetik.
- Euskara planak eta ekintzen beharra dagokion lekua eman ahal izateko, bai hezkuntzan, bai hiri paisaian eta baita ere herritarren erabileran.
- Berdintasun atalean egoki kudeatu beharreko egoera, egindako azken diagnostikoek azaltzen dituzten ezberdintasunak murriztu ahal izateko.
- Hirigintzan planifikazio berezia gauzatzeko beharra. Etxebizitza, garapen ekonomikoko eremuak, kotxeak eta aparkalekuak, gune berde landuak eta parkeak, aisialdi eta kirol guneak...

Jendarte antolatuaren parte hartze egokia guztiz beharrezkoa deritzot etorkizunari amankomunean aurre modu eraginkor eta aurrerakoian egiteko.

*Butx (Herripe)*



Bidebieta

## REALAREKIN HITZARMENA CESAR BENITO FUTBOL ZELAIA BERRITZEKO

Matigoxotegi eta Cesar Benito futbol zelaiak hurrengo hilabeteetan berrituko dira, Realak eta Donostiako Udalak lortutako akordioari esker. Realak lanen kostu osoaren %50a hartuko du bere gain “gipuzkoar guztiei kirola gerturatzea, adin eta maila guztietan futbolean aritzea lagunduz”. Cesar Benito zelaian zoladura hobetuko da desnibela konponduz eta belar artifiziala aldatuko da. Matigoxotegin berriz belar artifiziala berrituko da eta zelaia ureztatzeko sistema berria jarriko da.

Intxaurrondo

## DBUS-EK KOTXETEGIEN INSTALAZIOAK HANDITU DITU KANPOALDEAN APARKALEKU BERRI BAT JARRITA

Aparkaleku berrian erraz aparkatu ahal izango dira flotako ibilgailu guztiak, flota etengabe hazten eta berritzen ari baita, Donostiako garraio publikoaren zerbitzura autobus berriak sartzen jarraitu ahal izateko. Kotxetegien eremurako sarbideak aldatu dira eta Mons pasealekua eta Fernando Sasiain kalea lotu dira. Kotxetegien eraikin nagusia aparkaleku berritik bereizten zuen bidea ere lekuz aldatu da, metro batzuk beherago, Zubiaurrerantz.





Intxaurrondo

## LARROTXENE KULTUR ETXEKO IRISGARRITASUNA EGOKITU EGINGO DA

Larrotxene baserriko eraikinean igogailu bat jartzeko obra egingo da eta komunak ere egokitu egingo dira Kultur Etxeko irisgarritasuna hobetzeko asmoz. Lanak iraun bitartean bertan egiten diren jarduerak IZBE auzo elkartearen lokalaren eta Intxaurrondo Kultur Etxearen artean banatzea aurreikusten da.

Altza

## ASCENSOR EN JOLASTOKIETA

El Ayuntamiento ha aprobado el proyecto de implantación de un ascensor vertical en Jolastokieta, entre el paseo Bertsolari Txirrita y el paseo Larratxo del barrio de Altza, con un presupuesto de 458.063 euros. El objetivo de este proyecto es mejorar la accesibilidad del colectivo de personas que viven en las inmediaciones de Jolastokieta, mejorando la comunicación directa entre las viviendas situadas en la zona de Herrera y la zona superior del barrio de Altza.





19.000 ale · 0,15 € aleko